

» DISKOA

Gaztetxea eta musika



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

30 urte bete dira hiriko gazteak Gasteizko Alde Zaharreko muinoko etxeari bizitza ematen hasi zirenetik. Garai hartan Gasteizen egiten nituen udako egonaldiak osaba-izebarenean eta akorduan daukat lehengusuak erakutsi eta azaldu zidala Gaztetxe hasiberria zena. Sartzeko galdetzerakoan, baina, lehengusuak, zalantzati, nahiago izan zuen mutiko hura barrura ez eramatea. Orduan nork pentsatuko zuen eraikin hark halako bizitza oparoa izango zuenik eta nik neuk gerora Gaztetxeekin halako lotura estua izango nuenik.

Gaztetxeen bizitza ziklikoa izan ohi da, gorabeheratsua, gazteen inpultso, indar eta motibazioen araberakoa; eta adinak –eta berorrek datozenak– ere izaten du zeresana. Hala ere, Gasteizkoa, urte gutxi batzuk izan ezik, sasoikoa izan da 30 urteotan eta aktibo mantendu da hiri txiki horretako ekimen askoren aterpe iraunkor bilakatuta. Belaunaldiz belaunaldi bizi-bizirik jarraitzen du.

Musikaren esparruan ere aski irekia izan da beti, eta 2001ean Euskal Herriko talde ezagun askoren CDarekin urteurrena ospatu bazuten ere, oraingoan Gasteizko talde txikiagoekin osatu dute bilduma: Trikomak Jamaikara garraiatzen gaitu reggae-ska-ren bidez; Indarrak eta Markes Iraizosek indarrak batuta mezu oldarkorreko maisu-rapa gauzatu dute; Ni Yuta Ni Tuya-k *sekreta*-k salatzen ditu cumbia soinupean; rock kaletarraren oinordeko Zorriak-ek garratzasunez abesten du; Izaki Gardenak-ek dotorezia handiko pop-rock pieza intentsua oparitu digute; Bidelapurra-k-i esker a

Gasteizko Gaztetxea, 30 urte

ASKOREN ARTEAN

Autoekoizpena, 2018



capella abestutako folketik Irlandakora egingo dugu jauzi; Abesbatza Feministak Tarantisten erritmopean giro latinoetan bustitako kontakizun feminista eta aldarrikapena burutu dute; Harresian Zulok latinoak, popa eta folka ezkontzen ditu; Asteartek ere folkean dihardu; Musikgerrilla da thrash-metalaren ordezkari; Piztu Punk-ek euskarazko lehen abestia erditu du punk-rock azkar eta gitarreroaren ildoan; Kaskilloaren Zerrautsa folk minimalista ganberroa da; Garraxika kaleko punk-01!aren aho-tsa; Montauk sasi-elektronika eta post-rock misteriotsua batzen dituen perla; eta, azkenik, Gazte Asanbladak eresi askea eskaini du. Hamarkada askotarako! ■



Izaki Gardenak taldeko kideak.